

# Errolda ziurtagiria eskatu - Informazio orokorra

---

## ▪ Zertarako

Ziurtagiria eskuratzea, lagun bat erroldaturik dagoela egiaztatzen duena (errolda-ziurtagiria), Udal Erroldan egun jasota dagoenaren arabera.

## ▪ Errolda ziurtagiria nola eskuratu? 2 aukera dituzu:

### a) **Tramitazio telematikoa (Internet bidez ziurtagiria eskuratu)**

[Egin klik hemen.](#)

### b) **Tramitazio presentziala (Udaletxera hurbildu egiaztatzea lortzeko):**

#### ▪ Ekarri behar diren agiriak:

##### ▶ Interesduna edo familia unitate bereko kidea etortzen bada:

- NA, indarrean dagoen pasaporte edo horren ordezkoko nortasun agiria edo, bestela, egoitza-baimena (jatorrizkoa)

##### ▶ Beste inor agertuz gero:

- Bertaratutako lagunaren NA (jatorrizkoa)
- Interesatuaren NA (jatorrizkoa) edo baimen-agiria. Baita interesatuaren NAren fotokopia ere.

Unitate arduradunak eskubidea du beste dokumentu osagarriren bat eskatzeko, izapidea behar bezala bete ahal izateko.

## ▪ **Lege-Arautegia**

Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, apirilaren 2ko 7/1985 Legea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena) aldatzen duena, Udal Erroldari dagokion atalean.

Abenduaren 20ko 2612/1996 Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Toki Erakundearen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua aldatzen duena.